

# INFORMAZIO-GIDA

## OLENTZEROREKIN BIDEO DEIA

### **Zer da jarduera hau?**

Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek egingo duten jarduera, herriko familiei Olentzerorekin bideo-dei pertsonalizatuak eskaintzea da.

### **Zein adinetako haurrek parte hartu ahal izango dute?**

Ez dago adin muga saioaz gozatuko duten haurrentzat.

### **Haur bat baino gehiago izatekotan, sesioi bat baino gehiago erreserbatu dezaket?**

Ez, familia bakoitzeko saio bakarra erreserbatu daiteke. Zure seme-alaba guztien informazio eta xehetasun garrantzitsuenak idatzi ahal izango dituzu erreserba egitean, Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileei laguntzeko: Izenak, adinak, pasadizoak...

### **Zergatik ez dabil esteka <https://leioa.mirarim.es?>**

Esteka abenduaren 8tik aurrera egongo da eskuragarri.

### **Noiztik eta noiz arte erreserbatu dezaket?**

Esteka abenduaren 8tik aurrera egongo da eskuragarri eta erreserbak egiteko eta izena emateko azken eguna abenduaren 15a izango da. Garrantzitsua da lehenbailehen erreserbatzen saiatzea; hala ere, Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek ahal dugun guztia egingo dugu saioa erreserbatzera garaiz iristen ez diren guztiek taldeko bideo-deia izan dezaten 24an Olentzerorekin. Ezin da taldeko bideo-deira sartu bideo-dei pertsonalizatuta izan baduzu.

### **Nola egiten dut erreserba?**

Erreserba egiteko, udala bidalitako estekara sartu eta bertan erreserba egingo duzu, Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileak eskatzen dizkizueten datuak betez eta data eta ordutegia aukeratuz. Erreserba egin ondoren mezu elektronikoko bat iritsiko zaizu

erreserba baieztatzen. Deia erreserbatutako ordua baino minutu batzuk lehenago prest egotea gomendatzen dugu, segundo bat ere ez galtzeko.

### **Nola pertsonalizatu dezaket deia?**

Deia erreserbaren unean pertsonalizatzen da. Zenbat eta xehetasun gehiago ematen diozuen Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileeri, esperientzia hobea izango da.

### **Aukera al dezakegu elkarrizketa gaztelaniaz edo euskaraz izatea?**

Saioa erreserbatzeko orduan, Olentzerok zure semeari eta alabari euskaraz edo gaztelaniaz edo hitz gutxi euskaraz eta beste guztia gaztelaniaz hitz egitea nahi duzun aukeratu ahal izango duzu.

### **Zer egin behar dut Olentzeroren deia jasotzeko?**

Deia baino minutu batzuk lehenago, erreserbatutako ordu eta egunean, esteka bat iritsiko zaizu, eta, bertan klikatzean, pantaila beltz bat agertuko zaizu, deia orduaren atzerako kontu batekin. Atzerako kontua amaitzen denean Olentzero agertuko da pantailan zuzenean.

### **Garrantzitsua da gurasoen parte hartzea?**

Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileok beharrezkoa ikusten dugu haurren gurasoek uneoro haiekin egotea. Zuen laguntzarekin, haurrek probetxu handiagoa atera ahal izango diote saioari eta laguntza lagungarria izango litzateke, deian sor daitezkeen ezustekoak konpontzen laguntzeko.

Gainera, denbora gutxi da eta haurrek luzatzeko joera dute, batez ere Olentzerorekin hitz egiten.

Era berean, nahi dugu gurasook ohartzea zuen seme-alabek ilusio handia dutela Olentzero ezagutzeko.

### **Zein da deiaren arrazoia?**

Aurten, Olentzerok birusaren ondorioz, teknologia berriak probatu nahi ditu. Haur guztiekin hitzegiteko eta 24a heldu baino lehen nola portatu diren ikusteko.

### **Zenbat iraungo du deiak?**

Deiak 90 segundo iraungo du. Deia automatikoki hasiko da eta automatikoki amaituko da; beraz, garrantzitsua da deia baino minutu batzuk lehenago jasotako estekan prest egotea.

### **Zein gailutatik sar naiteke deira?**

Mugikorra, tableta eta ordenagailua erabili ahal izango dira deia jasotzeko.

### **Nola hobetu dezaket deiaren kalitatea?**

Mugikorrarekin adibidez, horizontalean jarriz gero, Olentzeroren irudia hobea izango da. Izan deiaren esteka erreserbatutako ordua baino minutu batzuk lehenago, deiaren segundo bat ere ez galtzeko.

Zihurtatu mikrofonoa eta audioa ongi joan daitezen deia baino lehen eta eskatutako baimenak baiztetatu.

Interneteko konexioa, dispositiboa, kamara eta nabigatzaile eguneratua izatea gauzak garrantzitsuak dira deiaren arrakastarako, ziurtatu konexio ona daukazuela saioaren ordua iritsi aurretik.

### **Zer gertatzen da konexio zuzena joaten bazait edo deian akatsen bat gertatzen bada?**

Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileak, saiatuko gara pertsona guztiak, arazoren bat izatekotan, hilaren 24an talde bideo-dei batera bideratzeko.

### **Nola dakit zenbat denbora geratzen zaidan bideo-deia amaitzeko?**

Atzerako kontu bat egongo da deia amaitu aurretik. Atzerako kontaketa amaitzen denean, bideo-deia automatikoki amaituko da.

### **Oroipen bat izango dut?**

Bai, bideo-deian zehar topaketaren oroimenezko argazki edo bideo bat izateko aukera izango duzu.

Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileen helbide elektronikoa edo telefonoa, beste arazoren bat izanez gero:



[info.mirarim@gmail.com](mailto:info.mirarim@gmail.com)

Tfno: +34 644 16 99 69